

## TEKNOLOGIA

# Haur ziborgak



DIANA FRANCO

**Z**iborg hitza sortu zen izaki bizidun hobetu bat deskribatzeko. Gorputz organikoa eta teknologia elkartzean, gorputzaren prestakuntzak hobetuta dituen izaki biziduna litzateke ziborga.

Azkenaldian, haur txikientzako erloju adimentsuen eta kontrolaren inguruan pentsatzen aritu naiz. Nire haurrak ere erloju adimentsu bat nahi du. Erloju horietako batzuk interesgarriak izan daitezke, haurren autonomia garatzeko tresna bat diren heinean. Beste batzuk, ordea, gurasoentzako eta korporazioentzako tresna bilakatu dira. Aplikazio bidez, haurren gaineko kontrola baliatzen dute eta horrekin haurren eta gurasoen arreta handiagoa eskatzen dute.

Kontrol logika horrekin saltzen ari diren erloju adimentsuak haurren jokabide eta gorputzarekiko kontrola handitzeko beharra areagotzen dute gurasoon gain. Aldi berean, lagun taldearen parte izateko bete beharreko eskakizun bilakatu dira haur askorentzat. Merkaturatzeko bidea, beraz, oso ondo diseinatua izan da eta negozio eredu ugari sustatzeko potentziala duen datu usiaketa dago diseinu horren atzean.

Duela hamar urte, nik neuk, lagun batzuekin, horrelako proiektu bat egin nuen Arduino plataforma erabilia. Osasun eremuari loturiko proiektua zen, gaixo zeuden haur txikiak lo zeuden bitartean monitorizatzeke. Zenbait medikurekin bildu nintzen, eta proiektuaren prototipo xume bat atera genuen, ez zen oso ona. Gure ezagutzak ere txikiak ziren, baita horri eskaini ahal genion denbora ere, eta bertan behera utzi genuen. Baina uste dut badagoela aldea pertsona bat gaixo dagoenean monitorizatzearen eta pertsona bat denbora guztian monitorizatzearen artean. Gailu hauekin, denbora guztian gure haurren gorputzak monitorizatzearen beharra sortu digute. Hurrengo pausoa ez ote da izango haurren gorputzen konkista? Euren gorputzetan kontrol biometrikorako teknologia barneratzera helduko ginatke? Haur ziborgak izango ote ditugu? Zelan aldaketa horrek guraso eta haurren arteko harremanak? Beharbada, horrelako gailu bat erostea pentsatzen gabiltzanean, erabakia hartzeko modu bat izan daiteke pentsatzea gailua norentzako tresna den benetan. ●

## NAZIOARTEA



Peltier, AEB-etako presidentegai izan den Gloria La Riva sozialistarekin, 2020ko otsailan kartzelara egindako bisita batean.

## Peltier: 45 urteko injustizia

AXIER LOPEZ

**H**ilaren 18an 45 urte bete dira AEBetako Ipar Dakotako jatorrizko herrien aldeko ekintzaileari bizi arteko espetxe zigor bi ezarri zizkietenetik. Peltier-ek, epaiketatik bertatik, bere errugabetasuna mantendu du, eta nazioarteko hainbat erakunde –tartean AEBetako dozenaka kongresistak– salatu du bere zigorra epaiketa bidegabe batek eragin zuela. Peltier kartzelara eraman zuen tiroketa Pine Ridge erreserba inguruan gertatu zen, ekintzaileen eta polizia-aren arteko protesta giroan. Erreserba hori Wounded Knee leku ezagunetik 16 kilometrora dago, non soldadu estatubatuarrek armarik gabeko ehunka lakota sarraskitu zituzten ia mende bat lehenago. Tiroketa hartan FBIko bi agente eta ekintzaile bat hil ziren. Azken honen heriotza, ordea, ez da inoiz ikertu. Peltierrek epaiketan onartu zuen tiroketan parte hartu izana bere burua defendatzeko, baina beti ukatu du agenteen heriotzarekin loturarik izan zuenik.

46 urte baino gehiago daramatza barrote artean. Egun 77 urte ditu, diabetek jota dago, hipertentsioa du, burmuineko isuri batek eragindako itsutasun partziala eta aortako aneurisma bat. Espetxean urte gehien daraman AEBetako preso politikoa da, baita mundu mailakoa ere.

James Reynolds, Peltier espetxeratzeko lagundu zuen fiskal estatubatuarrek berak ere gutuna idatzi zion Obama presidenteari 2017an, Peltier aske uzteko eskatuz: "Peltier konde-

natu eta luzaz espetxeratu izana akatsa izan zelako eta badelako". Era berean, Reynoldsek presidenteari eskatu zion natio amerikarren eta AEBetako Gobernuaren arteko harreman gatazkatsua konpontzen laguntzeko. Esan gabe doa, eskaera horiek ez dituztela bete, ez Obamak ezta Joe Bidenek ere. George Floyden hilketak eta Black Lives Matter mugimenduak arraza-zapalkuntzari buruzko eztabaida lehen lerroa ekartzea lortu zuten, baina Peltierren auziak konponbiderik gabe jarraitzen du. Peltierrek berak publikoki adierazi zuenez, "kartzelak AEBetako indiar erreserbarik handiena dira".

Peltierren indultua eskatzeko, iazko urrian Joe Bideni gutuna bidali zioten AEBetako bi dozena kongresukidek. Horietako bat da Ruth Anna Buffalo, Mandan, Hidatsa eta Arikara nazioko kidea eta Ipar Dakotako estatu-ordezkarria. Hala zioen berak: "Ez dugu tratu berezirik eskatzen, gizaki gisa tratatuak izatea eskatzen dugu. Gutako inor ez da libre Leonard aske izan arte".

Erraz idazten da 16.000 egun eta gau jarraian gatibu pasa dituela. Horretaz galdetu zion Kevin McKiernan kazetariak 2017ko elkarrizketa batean Peltierri: "Jakin izan bazenu [zure militantzia politikoak] 40 urte espetxean egotera eramango zintuela, berriro egingo al zenuke?". Eta Peltierren erantzuna argia da oso: "Munduko beste herri guztiek bizitzeko duten eskubide bera dugu guk ere bai. Beraz, bai, berriz egingo nuke, nire jendearen eta herriaren mesedetan". ●